

**Zirikatzen zaituzte?
Hona hemen eskutitz bat zuretzat.**

Kaixo, zer moduz?

Bizikidetzarako Aholkularitzaren webgunean zaude. Cristina eta Txon gara arduradunak eta lagundu nahi dizugu. Oso garrantzitsua da gertatzen ari zaizuna kontatzea zure konfiantzazko pertsona helduei. Kontatu iezaiezu zer gertatzen zaizun eta nola gustatuko litzaizukeen konpontzea. Ez bazara ausartzen pertsona heldu ezagunei esatera, edo nahi baldin baduzu, deitu dezakezu 900841551 telefonora. Doanik da. Deitzen duzunean ez bagaude, zure mezua utz dezakezu eta guk deituko dizugu nahi duzun telefonora. Ondoko helbidera idaztea ere baduzu: convive@cfnavarra.es, edo eskutitz bat igortzea ondoko helbidera:

Bizikidetzarako Aholkularitza
Hezkuntza Departamentua
Santo Domingo k., 8
31001 Iruña

Zurekin hitz egingo dugu eta elkarrekin pentsatuko dugu zer egin dezakegun. Zuk nahi baduzu, inork ez du jakingo ez deitu duzunik, ez idatzi duzunik.

Ez zaitetz isildu! Zuri laguntzeko prest gaude.

Jazarpenari buruzko informazioa eskuratzeko, begiratu ondoko webgunean:



<http://www.acosoescolar.info/>